

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**65/2019 Foru Agindua, otsailaren 8koa, onesten duena deialdia, izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza zerbitzuburuaren lanpostua (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza; kodea 1019.001)**

Martxoaren 4an hutsik geratuko da Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza Zerbitzuen buru lanpostua (kodea: 1019.001). Beraz, hura lehiaketa bidez betetzeko deialdia iragartzea erabaki da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak, 46.1 artikuluan, ezartzen du funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak lanpostuen zerrendetan ezarrita dagoenaren arabera beteko direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen lanpostu zerrendak ezartzen du Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza zerbitzuburuaren lanpostua betetzeko era izendapen librea dela eta euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek bete behar dutela.

Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen 61 zenbakiko aurretiazko fiskalizazioaren aldeko txostena aztertu da.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuan xedatutakoarekin ezarritakoarekin bat etorritik, Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta, otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Deialdia egitea izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza zerbitzuburuaren lanpostua (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza; kodea 1019.001).

Bigarrena. Deialdia arautu behar duten oinarriak onartzea. Horiek foru agindu honi erantsita ageri dira.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 8a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**